

## BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

### 2364

*AGINDUA, 2026ko apirilaren 29koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduak modernizatzeko laguntza-programaren 2026ko ekitaldirako deialdia egitekoa (MEC).*

Merkataritza-sektoreak egiturazko aldaketa sakonei egin behar die aurre etengabe, eta erronka nagusia du bere burua eraldatzea kontsumitzaileen erosketa-ohitura berriei erantzuteko, azken horiek kanal guztiak erabiltzeko, berrikuntzarako eta baliabideen digitalizaziorako joera baitute. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, banaketa-bide berrien agerpen indartsua eta energiaren prezioen eta fakturen gorakada direla-eta, beharrezkoa da estrategia, negozio-eredu eta energia-efizientziako neurri berriak hartzea, sektorearen kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko; betiere, berrikuntzan, modernizazioan, eraldaketa digitalean, irisgarritasunean, jasangarritasunean eta energiaren aurrezkiaren oinarrituta.

Horregatik, XIII. legegintzaldiko «Ongizatean hazi», «Ongizatea, Aurrerabidea, Eraldaketa eta Autogobernua Euskadi globala eraikitzen ari» izeneko gobernu-programak (2024-2028) «Hazkunde- eta ongizate-eredua» izeneko II. ardatzaren barruan, energia-efizientziako, jasangarritasuneko eta digitalizazioko irizpideetan oinarritutako konpromiso eta ekintza batzuk finkatu dira merkataritza-sektorea suspertzeko eta biziberritzeko, lehiakortasuna hobetuz, berrikuntza sustatuz, kudeaketa publikoa eta sektore pribatua bultzatuz, kudeaketa-estrategia berriak garatuz, EAEko merkataritzako azpisektoreak sustatzeko eta sensibilizatzeko kanpainetan lagunduz eta sinergiak sortuz. Horretarako, merkataritza-banaketaren arloko ente guztiek elkarrekin lan egin behar dute suspertze ekonomikoa lehenbailehen lortzeko. Programan bertan jaso denez, merkataritza-jarduera da gure gizartearen eta hirietako bizimoldearen oinarritzko elementu bat, eta tokiko hazkunde ekonomikoan eta enpleguaren sorkuntzan laguntzen du.

Konpromiso eta ekintza horiek guztiak, 2030erako EAEko Merkataritzaren Estrategian eta 2026-2030 Merkataritza Planean garatuko dira. Estrategia horretan finkatzen dira EAEko merkataritza munduko merkataritza-agertoki berri batera egokitzen ari diren eraman behar duten ildo estrategikoak, oinarri estrategikoak berrituz eta egungo eta etorkizuneko mundu digital batean parte hartuz negozio-eredu berriekin. Bestalde, Planaren helburua da sektorearen erronka eta joera nagusiei erantzutea, haren lehiakortasuna hobetuz, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen jasangarritasunaren eta digitalizazioaren aldeko apustua eginez; hori guztia gure auzo, herri eta hirietako merkataritza txikira bideratuta.

Txikizkako merkataritzan, nahiz eta prezio konstanteetan egiten diren salmenten urte arteko bilakaera positiboa izan den (EUSTATen datuen arabera % 3,4ko hazkundea), komenigarritzat jotzen da merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduak modernizatzen laguntzen jarraitzea, agindu honek dakarren programaren bidez.

Laguntza-programa honek helburu hauek ditu: baliabideen xedearen eraginkortasuna handitzea, gure auzo, herri eta hirietako hurbileko merkataritza lehenetsiz; EAEko merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduak modernizatzea eta energia-efizientzia hobetzea, berrikuntzaren bidez eta oinarri teknologiko eta

eko-efizienteko prozesuen ezarpenaren bidez; eta merkataritza-jarduerarekin lotutako kudeaketa-tresnak, azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzea. Izan ere, modu horretan, kalitate eta lehiakortasun handiagoa lortuko da, eta salmentak handitzean islatuko da hori.

Hori guztia, horri buruzko araudian xedatutakoa kontuan hartuta, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea kontuan hartuta, eta bat etorritzat Merkataritza 2030 Estrategiarekin, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin, eta Sailak eta Jaurlaritzak agenda horrekin duten konpromisoa indartuz, bereziki Garapen Jasangarrirako ondorengo Helburuei dago-kienez: GJH5: Genero-berdintasuna; GJH8: Hazkunde inklusibo eta jasangarria sustatzea, bai eta guztientzako enplegua eta lan duina ere; GJH9: Industria, berrikuntza eta azpiegitura; GJH11: Hiri eta komunitate jasangarriak; GJH12: Kontsumo- eta ekoizpen-modalitate jasangarriak; GJH13: Klimaren aldeko ekintza, bereziki ekonomia zirkularraren sustapena; eta GJH17: Helburuak lortzeko aliantzak; abuztuaren 1eko 14/2022 Errege Lege Dekretuaren V. titulua (14/2022 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, garraioaren alorreko eta ikasketetarako beka eta laguntzen alorreko jasangarritasun ekonomikoko neurriena eta aurrezpena eta energia-efizientzia lortzeko eta gas naturalaren mendekotasun energetikoa murrizteko neurriena), eta Segurtasun Energetiko Gehiago deritzon plana (SE+), Ministro Kontseiluak 2022ko urriaren 11n onartua.

Agindu hau Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen aginduaren hirugarren aldaketan sartuta dago; Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2025eko otsailaren 5eko Aginduaren bidez onartu zen plan hori (<https://www.euskadi.eus/administrazioaren-iragarkia/2024-2027-eperako-dirulaguntzen-plan-estrategikoaren-aldaketa/web01-tramite/eu/>). Merkataritza-establezimenduen modernizazioa bultzatzen da, kudeaketa-tresnak eta azpiegiturak berrituz eta hobetuz, eta energia-kontsumoaren eraginkortasuna hobetzea bultzatzen da, haien ekipamenduak, obra zibila, altzariak, ekipamendu informatikoa eta digitala finantzatuz.

Aurrekontu-kreditua dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legean ezarritakoaren arabera (2025eko abenduaren 30eko EHAA).

Horrenbestez, hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduak modernizatzeko laguntza-programaren 2026ko ekitaldirako deialdiaren oinarriak onartzea, eranskinetan jasotzen den legez.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Deialdi honen xede diren dirulaguntzei, arau hauetan ezarritakoa aplikatuko zaie: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta azken lege horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko arau-

dia eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamendua.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Bi kasuetan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 29a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,  
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.

## I. ERANSKINA

## DEIALDIAREN OINARRIAK

## I. KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

## 1. oinarria.– Laguntza-deialdiaren xedea.

1.– Oinarri hauen xedea da, 2026ko ekitaldian, laguntza jakin batzuk ezartzea eta horiek emateko deialdia egitea, EAEko merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduak (aurrerantzean, laguntzaren xede diren establezimenduak) modernizatzeko eta energia-kontsumoaren efizientzia hobetzeko, berrikuntzaren bidez eta oinarri teknologiko eta eko-efizienteko prozesuen ezarpenaren bidez; eta merkataritza-jarduerarekin edo zerbitzu jakin batzuekin lotutako kudeaketa-tresnak, azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzea. Izan ere, modu horretan, kalitate eta lehiakortasun handiagoa lortuko da.

2.– Helburu horrekin bat etorritik, laguntzaren xede diren establezimenduak modernizatzeko eta energia-aurrezpena lortzeko inbertsioak sustatuko dira, ekipamenduak, obra zibila, altzariak eta ekipamendu informatikoa eta digitala finantzatuz. Hori guztia, Merkataritza 2030 Estrategiarekin eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin bat etorritik, batez ere ondorengo garapen-helburuei dagokionez: GJH5, GJH8, GJH9, GJH11, GJH12, GJH13 eta GJH17, 14/2022 Errege Lege Dekretua eta Segurtasun Energetiko Gehiago deritzon plana (SE+).

## 2. oinarria.– Baliabide ekonomikoak.

Aurreko oinarrian adierazitako helbururako, 4.654.000,00 euroko baliabide ekonomikoak bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako aurrekontu-kredituetatik hartuta.

Deialdiaren zenbateko osoa gehienez ere % 50era arte handitzeko aukera aurreikusten da. Gehikuntza hori Turismo eta Merkataritzako sailburuordeak onartuko du eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Gehikuntza horrek ez du ekarriko eskabideak aurkezteko beste epe bat irekitzea, ez eta ebazteko epea berriro zenbatzen hastea ere.

## 3. oinarria.– Pertsona eta entitate onuradunak.

1.– Norberaren konturako langileak edo autonomoak, sozietate zibilak eta ondasun-erkidegoak, mikroenpresak eta enpresa txikiak, baldin eta beren jarduera nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako kaleko establezimendu fisikoetan egiten badute, establezimenduak zabalik eta jardunean badaude, eta betiere agindu honen 5. oinarrian jasotako ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafeetan sartzen badira.

2.– Deialdi honetan ezarritakoari dagokionez, merkataritza-jardueratzat hartuko da merkatuaren esku jartzea xede horretarako eskuratutako salgaiak edo produktuak, beren horretan eta eraldaketa-prozesu handirik gabe, baita ekoizleek, artisauek edo industrialek azken kontsumorako ondasunak zuzenean saltzea ere, baldin eta ondasun horiek ekoizteko, merkaturatzeko edo hirugarrenei zerbitzuak eskaintzeko prozesuetan sartuko ez diren ondasunak badira. Bai eta zerbitzuak ematea ere, horiek azkenean merkatuari eskaintzen zaizkionean, betiere laguntzaren xede den establezimenduan egindako jardueraren osagarri den establezimendu komertzial baten bitartez, edo zerbitzu fisikoko establezimendu baten bitartez edo online motako merkataritzaren bitartez.

3.– Laguntzaren xede den establezimenduan egindako jardueraren titularrak ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak badira, haietan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako eskakizunak eta baldintzak. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari bat izendatu beharko da, onuradun gisa entitateari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituena.

4.– Ezin izango dira laguntzen onuradun izan armak ekoizten, merkaturatzen edo finantzatzen dituztenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legeak xedatutakoa betez.

4. oinarria – Pertsona eta entitate eskatzaileen eskakizunak.

Pertsona eta entitate eskatzaileek, baldin eta laguntzaren xede diren establezimenduetan garatutako jardueraren titularrak badira, eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Norberaren konturako langilea edo autonomoa, sozietate zibila, ondasun-erkidegoa, mikroenpresa edo enpresa txikia izatea, mikroenpresa eta enpresa ertain eta txikien definizioari buruz Europako Batzordeak 2003ko maiatzaren 6an emandako 2003/361/EE Gomendioan ezarritakoarekin edo gomendio hori ordeztzen edo aldatzen duten xedapenekin bat etorrita. Hau da:

– Mikroenpresa: soldatapeko hamar langile baino gutxiago izatea, eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra ez izatea 2 milioi eurotik gorakoa.

– Enpresa txikia: soldatapeko berrogeita hamar langile baino gutxiago izatea, eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra ez izatea 10 milioi eurotik gorakoa.

b) Laguntzaren xede den kaleko establezimendu fisikoren jarduera ekonomikoak eta haren egoitza sozial eta fiskalak EAEn egotea, eta establezimendua zabalik eta jardunean egotea. Eskakizun horiek eskabidearen egunerako bete beharko dira.

c) Laguntzaren xede den establezimendua agindu honen 5. oinarrian jasotako ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe edo multzoren bateko jarduera nagusian aritzea eta alta emanda egotea eskabidearen egunean.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, laguntza emateko ebazpena, emateko eta likidatzeko ebazpena edo likidatzeko ebazpena eman baino lehen, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

e) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izatea, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoaren arabera.

f) Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik, eta ez izatea horretarako desgaitzen duen lege-debekurik (sexu-diskriminazioagatik sortutakoak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuari edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoari jarraikiz).

g) Pertsona edo entitate onuraduna ez egotea berreskuratze-agindu baten mende, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

h) Konpromisoa hartzea jarduerak gainfinantzaketarik ez izateko, dirulaguntza jasoz gero.

i) Enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

j) Ez egotea Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzekoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan xedatutako egoera eragozleetako batean ere.

k) Ez egotea Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatueta aurreikusitako gainerako egoeretako batean ere, dirulaguntzen onuradun izateko.

5. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeak.

3. oinarrian aipatutako pertsonak edo entitateek jaso ahal izango dituzte agindu honen xede diren laguntzak, baldin eta horien jarduera nagusia ekonomia-jardueren gaineko zergaren hurrengo epigrafeetan kokatuta badago:

Txikizkako merkataritza:

641 Fruituen, barazkien, ortuarien eta tuberkuluen txikizkako merkataritza.

642 Produktu hauen txikizkako merkataritza: haragia eta hondakinak, haragi-gai eta haragiki landuak, arrautzak, hegaztiak, abeletzeko untxiak, ehizakiak, eta horien ekoizkin eratorriak.

643 Arrainen eta arrantzako eta akuikulturako bestelako ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.

644 Ogi, pastel, gozoki eta antzekoen eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza.

645 Mota guztietako ardoen eta edarien txikizkako merkataritza.

646.1 Era eta forma guztietako tabako-laboreen txikizkako merkataritza, saltoki orokorretan, berezietan eta barnekoetan egiten denean.

646.2 Era eta forma guztietako tabako-laboreen txikizkako merkataritza, saltoki orokorren aldi baterako hedapenetan egiten denean.

646.3 Era eta forma guztietako tabako-laboreen txikizkako merkataritza, saltoki osagarrietan egiten denean.

646.4 Tabako-laboreen txikizkako merkataritza, salmenta errekargudunerako baimena duten merkataritza-establezimenduetan egiten denean.

646.6 Era eta forma guztietako tabakoen txikizkako merkataritza, salmentarako estankorik ez dagoen udalerrietan.

646.7 Baimen bereziak dituzten ezindu fisikoek egindako tabako-laboreen txikizkako merkataritza.

646.8 Erretzaileentzako artikuluen txikizkako merkataritza.

647.1 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako salmenta, establezimendu saltzaile duntan.

647.2 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko araubidean nahiz araubide mistoan, saltzeko gelak 120 m<sup>2</sup> baino gutxiagoko azalera duenean.

647.3 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko araubidean nahiz araubide mistoan superzerbitzutan, hala hartuta saltzeko gela 120 eta 399 m<sup>2</sup> artekoa denean.

651 Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza.

652.1 Sendagaien, osasun-produktuen eta higiene pertsonalerako produktuen txikizkako merkataritza, farmazia-bulegoetan egina.

652.2 Drogeriako, lurringintzako eta kosmetikako produktuen, garbiketako gaien, pinturen, ber-nizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.

652.3 Lurringintzako eta kosmetikako ekoizkinen eta higiene eta garbiketa pertsonalerako gaien txikizkako merkataritza.

652.4 Belar-dendetako landareen eta belarren txikizkako merkataritza.

653 Etxeko ekipamenduen eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.

654.2 Lurreko ibilgailuentzako osagarrien eta ordezeko piezen txikizkako merkataritza.

654.5 Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (salbu eta etxeko aparatuak, bulegoak, medikoak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak).

654.6 Mota guztietako ibilgailuetarako pneumatikoen, banden eta aire-ganberen txikizkako merkataritza.

656 Altzarien, jantzien, etxean erabiltzeko jantzi eta tresna arrunten eta antzeko ondasun erabilien txikizkako merkataritza.

657 Musika-tresnen eta horien osagarrien txikizkako merkataritza.

659 Bestelako txikizkako merkataritza.

662 Txikizkako merkataritza mistoa edo integratua.

691.1 Etxerako artikulu elektrikoen konponketa.

691.9 BISGko kontsumo-ondasun zenbaiten konponketa.

Merkataritza-jarduerari lotutako beste zerbitzu batzuk:

971 Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.

972 Ile-apaindegiak eta edertasun-apaindegiak.

973.1 Argazkigintza-zerbitzuak.

973.3 Fotokopiagailuen bitartez agiriak kopiatzeko zerbitzuak.

975 Markogintza-zerbitzuak.

6. oinarria.– Diruz lagundu daitekeen aldia.

Diruz lagundu ahal izango dira 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 15era bitartean, biak barne, egiten diren inbertsioak.

7. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak.

1.– Eskakizun hauek betetzen dituzten inbertsioak eta aktiboak hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat:

a) Zorrozkari beharrezkoak diren inbertsioak eta laguntzaren xede den establezimenduan garatu-tako jarduera nagusiarekin zuzenean lotura dutenak.

b) Laguntzaren xede diren Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako kaleko txikizkako establezimendu fisikoetan –establezimendua zabalik eta jardunean dagoela– egindako inbertsioak.

c) Enpresaren aktiboan lehen aldiz sartutako inbertsioak, laguntzaren xede den establezimenduan bertan badaude, hau da, salmenta gauzatzen den establezimenduan edo haren eranskinetan.

Eranskintzat hartuko dira fisikoki ondoan dauden espazioak, juridikoki titular berari lotutakoak eta jarduera nagusirako soilik atxikitakoak.

d) Diruz lagundu daitezkeen 8. oinarriko puntuetan jasotako inbertsioak.

e) 6. oinarrian aipatutako eta 20. oinarriaren arabera ordaindutako diruz lagundu daitekeen aldian benetan egindako eta fakturatutako inbertsioak.

Diruz lagundutako inbertsioak gutxienez bi urtez egon beharko du (dagokion fakturaren data-tik aurrera) laguntza eskatu den establezimenduan. Tarte horretan ezin zaie hirugarren pertsona fisiko nahiz juridikoei laga.

2.– Diruz lagundu ahal izateko, egindako inbertsioek onartutako gutxieneko inbertsio-zenbateko hau eduki beharko dute dirulaguntza-lerroko:

– 3.000 euro (BEZik gabe), 8. oinarriko 1. puntu jasotako inbertsioetarako.

– 1.000 euro (BEZik gabe), 8. oinarriko 2. puntu jasotako inbertsioetarako.

Diruz lagundu daitekeen puntu batean baino gehiagotan inbertsioak egiten diren kasuetan, puntu bakoitzean onartutako gutxieneko inbertsio-zenbatekoa betetzen dutenak bakarrik lagundu ahalko dira diruz.

8. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen lerroak.

Lerro hauek lagundu daitezke diruz:

1.– Laguntzaren xede den establezimenduaren azpiegitura eta ekipamendua berritzea:

a) Establezimenduaren barrualdea edo kanpoaldea egokitzeko, berritzeko edo handitzeko eraberritze, obra eta instalazioak, betiere eragina baldin badute establezimenduaren egokitzapenean, merkataritza-azaleraren banaketan edo itxura hobetzeko orduan.

b) Energia-aurrezpen edo -efizientziarako neurriak ezartzeko obrak eta instalazioak (ate automatikoak, instalazio elektrikoak, okupazio-sentsoreak, isolamenduak...).

c) Oztopo arkitektonikoak kentzeko egindako berrikuntzak, mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko.

d) Errotuluak eskuratu eta establezimenduaren kanpoaldean instalatzea, izen komertziala, marka, logotipoa edo antzekoak identifikatzeko, bai eta eguzki-oihalak erosi eta instalatzea ere.

e) Establezimenduaren jarduera nagusiari lotutako altzariak eta makineria erosi, instalatu eta muntatzea.

f) Ekipamendua eta altzariak erostea.

g) Alarmak eta segurtasun-sistemak. Diruz lagundu daitekeen inbertsioaren gehieneko zenbatekoa ezin izango da 6.000 euro baino handiagoa izan, BEZik gabe.

h) Lokala girotzeko ekipamenduak, betiere energia-efizientzia altuko ziurtagiri energetikoa badute.

i) Merkataritza-jarduerari zuzenean lotutako espazioak eta elementu komunak hobetzeko eta modernizatzeko inbertsioak, merkataritza-gune batean integratuta badaude; besteak beste, korridoreak, instalazio teknikoak, estalkiak, kanpoko fatxada, zerbitzuak edota sarbideak, betiere espazio horiek laguntzaren xede den establezimenduetan garatutako jardueraren titularrek kudeatzen badituzte, jabekide-erkidegoko araubidean.

Merkataritza-gunean bildutako establezimenduetako jardueraren jabe bakoitzak, jabekide-erki-degoaren partaide denak, esandako espazio komunean egiten diren inbertsioetatik, bere partaidetzari dagokion gastuen zatiagatik (zati alikuota) eskatu ahal izango du laguntza.

j) Proiektua idaztetik, obra zuzentzetik edo arkitekto, ingeniari edo instalatzaile baimenduek egindako proiektuetatik eratorritako gastuak, betiere laguntzaren xede den establezimenduan obrak eta instalazioak egiteko beharrezkoak badira.

2.– Teknologia berriak eta berrikuntza sartzea laguntzaren xede den establezimenduan:

a) Ekipamendu informatikoak, aplikazio informatikoak eta kudeaketa-softwarea, laguntzaren xede den establezimenduaren kudeaketa hobetzera zuzendutakoak, betiere merkaturatze-prozesuetan integratuta edo enpresa-kudeaketara bideratuta badaude.

Ekipamendu informatiko bat eta periferiko mota bakoitzeko unitate bat baino ez dira diruz lagunduko, inbertsioa gauzatzen den establezimendu bakoitzeko.

b) Merkaturatze-sistemak sortu, garatu, ezarri, hobetu edo martxan jartzeko lanak (webgunea garatzea, online saltzea, ecommerce, scommerce, mcommerce eta parekoak) edo establezimendua kudeatzekoak (bezeroak, hornitzaileak eta abar).

c) Salmenta-puntuaren terminalak eta produktuen irakurgailu optiko eta kodetze-sistemak.

d) Salgaien balantza elektronikoak.

e) Kutxa-erregistratzaileak.

9. oinarria.– Diruz lagundu ezin diren inbertsio eta gastuak.

1.– Inbertsio hauek ezin dute inola ere dirulaguntzarik jaso:

a) Lokalak erostea eta eskualdatzeko eskubideak.

b) Garraio-elementuak, telebistak edo telefono-terminalak erostea.

c) Ekipamendua leasing edo renting bidez erostea.

- d) Erakusteko eta probatzeko artikulak, bai eta ondoren salmentan jar daitezkeenak ere.
- e) Argi-aldaketa hutsa.
- f) Eraberritze-lanak, baldin eta ez badute establezimenduaren itxura modu argi eta zuzenean aldatuko.
- g) Laguntzaren enpresa eskatzaileak berak fabrikatu, egin edo garatutako elementuak edo ekipamenduak.
- h) Eraberritzeak, obrak edo instalazioak baliabide propioekin egitera bideratutako materialak erostea.
- i) Zerbitzuaren edo saltokiaren tipologia dela eta, gastu gisa (eta ez inbertsio gisa) hartuko diren ekipamenduak eta tresnak.

2.– Gastu hauek ezin dute inola ere dirulaguntzarik jaso:

- a) Administrazio-baimenen edo lizentzien ondoriozko tasak, aseguruak eta garraio-kostuak.
- b) Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta, oro har, mota guztietako zergak, tasak edo kontribuzioak.
- c) Aktibo baten elementuen mantentze-, konponketa- edo ordezte-lanen gastuak.
- d) Bulegoko materialaren, tresnen eta antzekoen gastuak.
- e) Dekorazio-gastuak.
- f) Profesionalen aholkularitzako eta prestakuntzako gastuak.
- g) Softwarea mantentzeko, eguneratzeko edo tresna informatikoak erabiltzeko lizentzien gastuak.
- h) Web-orrien publizitate- eta posizionamendu-gastuak.

10. oinarria.– Kontratazioa, merkatuko balioa eta azpikontratazioa.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ulertu behar da onuradun batek kontratatu egiten duela hirugarren batzuekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo haren zati bat gauzatzeko zeregina. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

Hori horrela, hirugarrenen kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahal izango da, eta diruz lagundutako jardueretarako hirugarrenen kontrataziorako aplikagarri izango dira aipatutako artikuluan jasotako gainerako aurreikuspenak.

Inola ere ezingo dira dirulaguntzaren kostua handiagotzen duten jarduerak kontratatu, jardueraren edukari balio erantsirik gehitzen ez badiote eta ez badira merkatuko baldintza normaletan egiten.

Nolanahi ere, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan ezarritako mugak eta betebeharrak aplikatuko dira.

2.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000 eurotik gorakoa denean obren kontratuetan, edo 15.000 eurotik gorakoa denean hornidura- edo zerbitzu-kontratu-

tan, eta hirugarrenekin kontratatzea badakar, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, salbu eta obra, zerbitzu edo ondasun horien ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago halakorik egin, eman edo hornitzeko entitate nahikorik edota dirulaguntza eman aurretik egiten bada gastua.

3.– Dirulaguntzaren eskabidean azaldu beharko dira aurkeztu diren eskaintzak. Eskaintza horien artean bat aukeratzeko, efizientiaren eta ekonomiaren irizpideak hartuko dira kontuan, eta, eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, berariaz justifikatu beharko da zergatia eskabidearekin batera aurkeztu beharreko memorian, 14.1.h puntuan adierazitakoan, hain zuzen.

4.– Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratzeko-kostua ezin izango da inola ere merkatuko balioa baino handiagoa izan. Merkataritza Zuzendaritzak hori egiaztatu ahal izango du, deialdian aurkeztutako beste eskabide batzuekin alderatuz, sektoreko prezioen datu-baseen kontsulten bidez edo egiaztapenerako beste edozein bide egokiren bidez; eta diruz lagundu daitezkeen zenbatekoa gutxitu ahal izango du, adierazitako kostua merkatuko balioa baino handiagoa denean.

11. oinarria.– Laguntzen banakako zenbatekoa.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidez gauzatuko dira.

2.– Agindu honetan zehaztutako inbertsioek inbertsio onargarriaren gaineko % 40ko dirulaguntza jasoko dute, diruz lagundu ahal izateko 7. oinarriko 2. puntuan jasotako gutxieneko zenbatekoak errespetatuz betiere.

Oinarri honetan xedatutakoaren ondorioetarako, inbertsio onargarritzat hartuko da, modu meta-tuan, baldintza hauek guztiak betetzen dituen inbertsioa: 8. oinarriaren arabera diruz lagundu daitezkeen lerroen artean egotea; 7. oinarrian diruz laguntzeko ezarritako eskakizun orokorrak betetzea; 9. oinarrian aurreikusitako baztertze-kausa batek ere ez eragozte; 6. oinarrian diruz laguntzeko ezarritako aldiaren gauzatua eta fakturatua izatea benetan, eta 20. oinarrian aurreikusitako moduan ordaindua izatea; eta kostuak merkatuko balioa ez gainditzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Dirulaguntza, gehienez ere, 10.000 eurokoa izango da establezimenduko.

3.– Inbertsio onargarriaren aipatutako ehunekoak handitu egingo dira laguntzaren xede den establezimenduak irizpide hauetakoren bat egiaztatzen badu:

a) Merkataritza Zuzendaritzak Euskalit fundazioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-, industria-, zerbitzu- eta nabigazio-ganbarekin elkarlanean bultzatutako «Merkabide», «Retail Euskal Eskola» edo «Eus-commerce» programetako batean, gutxienez, parte hartu izana 2025ean: puntu 1 gehienez.

b) 8. oinarriko 1. puntuan jasotako inbertsioa: laguntzaren xede den establezimenduaren azpiegitura eta ekipamendua berritzea: 2 puntu.

c) Emakumearen enplegua egonkortzeko irizpidea, dirulaguntzaren xede den establezimenduko enpresa eskatzailearen langileen erdiek gutxienez kontratu mugagabea dutela eta emakumeak direla egiaztatzen bada: puntu 1.

d) Berdintasun-plana edo lana eta familia bateragarri egiteko plana izatea, edo Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako entitate laguntzailearen izendapena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak edo beste edozein administrazio publikok emanda: puntu 1.

- e) Enpresa Kontsumobideko Arbitraje Sistemari atxikita badago: puntu 1.
- f) Eskabide-egunean merkataritza-elkarteren batekin lotura badu, eta lotura hori laguntzaren xedea den establezimenduan egiten den inbertsioak bertan iraun artekoa bada gutxienez: 3 puntu.
- Horretarako, merkataritza-elkartea Euskadiko Merkatarien Elkarteen Erroldan inskribatuta egon beharko da (indarrean dagoen elkartean, jakina).
- g) Laguntzaren xede den establezimenduak, non jarduera ekonomikoa gauzatzen den, Merkataritza Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-, industria-, zerbitzu- eta nabigazio-ganbarekin elkarlanean bultzatutako «Berriz enpresa» programan parte hartzea 2025ean: puntu 1.
- h) Entitate eskatzaileak laguntzaren xede den establezimenduan egiten duen merkataritza-jarduerak 10 urte baino gehiagoko antzinasuna izatea: puntu 1.
- i) Establezimenduan euskaraz aritzea jendearekin, Bai Euskarari ziurtagiriaren, BIKAIN Hizkuntza Kudeaketaren Kalitatearen ziurtagiriaren edo Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren bitartez egiaztatuta, 2025ean; edo, bestela, «Euskaraz barra-barra» proiektuan parte hartzea (<https://euskarazbarrabarra.eus/>): puntu 1 gehienez.
- j) Energia-komunitateetan parte hartzea 2025ean (Ekiola Energia Sustapenak, SL, EEE, TEK –Tokiko Komunitate Energetikoak–...), baldin eta komunitate horiek autohornikuntza sustatzen badute, kanpoko iturriekiko mendekotasuna gutxitzen badute eta energia berriztagarri jasanga-riak sustatzen badituzte: 2 puntu.

Dirulaguntzaren ehunekoa ezin izango da inola ere izan onartutako inbertsio guztiaren % 52 baino handiagoa, igoera-puntuak barne hartuta.

## 12. oinarria.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honen babespean lortutako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuetatik edo entitate pribatuetatik pertsona eta entitate onuradunek xede bererako jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek, baldin eta gainfiantzaketarik ez badago.

Agindu honetan xedatutako laguntzek ezin izango dute, beste administrazio publiko edo ente pribatu edo publiko batzuen dirulaguntzekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, eta, kasu horretan, agindu honetan emandako laguntza gutxituko da, soberako kopurua kenduta.

2.– Agindu honetan xedatutako laguntzek errespetatu egingo dituzte Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarrita dauden de minimis arauak errespetatuko dituzte. Enpresa batek gehienez 300.000 euro jaso ditzake de minimis laguntzetan, 3 urteko edozein epetan, estatu kide bakoitzean.

## II. KAPITULUA

### PROZEDURA

## 13. oinarria.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2026ko irailaren 15ean bukatuko da, edo, hala badagokio, horretarako ezarritako kreditua agortu arte iraungo du.

2.– Laguntzaren xede den establezimenduko eskabide bakar bat aurkeztu beharko da. Eskabidea osorik dagoela ondorioztatzeko, 14. oinarrian adierazitako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da.

3.– Eskabidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez eskuratu eta beteko da: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1010113>

Era berean, eskabide-eredua agindu honen II. eranskinean dago jasota.

4.– Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartzen diren identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

5.– Eskabidearekin batera, laguntzaren eskatzailea ordezkatzeko gaitasun legala duen pertsona edo entitatearen sinadura elektronikoa ez ezik, harekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera Administrazioak eska ditzakeenak aurkeztu beharko dira.

6.– Laguntza jasotzeko eskabidea, eskatutako dokumentazioarekin batera, nahi den hizkuntza ofizialean aurkez daiteke. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko komunikazioetan, eta prozedura osoan, entitate eskatzaileak hautatu duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

7.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako eskakizunak.

14. oinarria.– Eskabideen edukia, aurkeztu behar den dokumentazioa eta eskakizunak egiaztatzea.

1.– Eskabidea egiteko, inprimaki automatizatu bat bete beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan, eta horren bidez dokumentazio hau aurkeztu:

a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, haren NANA edo AIZA.

b) Eskatzailea pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko entitatea bada (ondasun-erki-degoak eta sozietate zibilak), entitate eskatzailearen IFZ.

c) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, enpresaren eratze-eskrituren eta ondoren egindako aldaketan dokumentazio osoa.

Nortasun juridikorik gabeko entitateen, ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen kasuan, eratze-kontratua.

d) Pertsona edo entitate eskatzailearen ordezkartza-ahalordea, halakorik bada.

Ordezkaritza beste pertsona bati emateko aukera dago, haren izenean jardun dezan elektronikoki agindu honi buruzko prozedura guztietan, 16. oinarrian zehaztutakoaren arabera.

e) Laguntzaren xede den enpresaren ekonomia-jardueren gaineko zergako alten eta, hala badagokio, bajen ziurtagiri historiko eguneratua. Ezin izango dira 3 hilabete baino gehiago igaro eskabidea egiteko, ziurtagiria eman zenetik.

Ziurtagiri horretan adierazi beharko da noiz eman zen alta eta baja EJZn, bai eta eskabidean aipatutako laguntzaren xede den establezimenduaren kokapena zein den ere.

f) Fakturazioaren erregelamendua (Azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretua) bete behar duten laguntzaren xede diren inbertsioen fakturak eta horiek ordaindu izanaren ordainagiriak, halakorik bada, eskabidea aurkezten denean.

Bestela, ordainagiriak gehienez bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, agindu honen 20. oinarrian jasotzen denaren arabera.

Bakar-bakarrik onartuko dira eskabidea aurkezteko unean inprimaki automatizatuan aipatu edo aurkeztu diren fakturak, baldin eta diruz lagundu daitekeen zenbatekoa, BEZik gabe, 100 euro baino gehiagokoa bada eta diruz lagundu daitezkeen inbertsioen edo aktiboen deskribapena ondo identifikatuta badute; ez dira onartuko kodetutako kontzeptuak.

20. oinarrian zehaztutako epean osorik edo partzialki ordaindu izana fakturen ordainagiriaren bidez behar bezala egiaztatzen den zenbatekoa soilik lagunduko da diruz, nahiz eta adierazitako kostua handiagoa izan.

Ez da dirulaguntzarik emango diruz lagundu daitezkeen aktiboen deskribapena ondo identifikatuta ez duten fakturetarako –ez dira onartuko kodetutako kontzeptuak–. Gainera, faktura horiek 100 euro edo gutxiagokoak izango dira, BEZik gabe.

1.000 euroko edo gehiagoko ordainketen justifikazioa banku-transferentzien, banku-ziurtagiriaren edo ordainketa-laburpenen bidez egiaztatu beharko da, zerga-iruzurra prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriei buruzko uztailaren 9ko 11/2021 Legearen arabera.

g) Energia-efizientzia altuko ziurtagiria, 8. oinarriko 1. puntuko h) apartatuan aurreikusitako inbertsioen kasuan.

h) Inbertsioen deskripzio-memoria laburra, haien ezaugarriak, funtzioak eta laguntzaren xede den establezimenduaren jardura nagusiarekin duten lotura jasotzen dituenak. 10.3 oinarrian aurreikusitako kasuan, hiru eskaintzen artean ekonomikoki merkeena hautatzen ez denean, memoria horretan justifikatu beharko da.

i) Pertsona eta entitate eskatzaileek dirulaguntza emateko proposamena egin aurretik egiaztatutako beharko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela. Dagokion laguntzaren edo dirulaguntzaren azken ordainketa egiaztatzen den arte, gutxienez, bete beharko dituzte betebeharrak horiek.

Betebeharrak horiek betetzen direla egiaztatzeko, administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztuko dira, zerga-organo edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko organo eskudunek emanak, hurrenez hurren.

j) Pertsona eta entitate eskatzaileek dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean dituztela egiaztatu beharko dute, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta eskabidearekin batera, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan adierazitako irismenarekin.

Dirulaguntza ematen bada, eta dirulaguntza guztiz egiaztatu bitartean inguruabar hori aldatzen bada, nahitaez jakinarazi beharko zaio Merkataritza Zuzendaritzari.

k) Erantzukizunpeko adierazpena, 17. oinarrian ezarritakoaren arabera, non adierazten den egiazkoak direla eskabideko datuak eta aurkeztutako dokumentazioa eta bere gain hartzen duela dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikuluan arabera).

Merkataritza Zuzendaritzak dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik eta, hala badagokio, emateko eta likidatzeko ebazpena eman aurretik egiaztatuko du, elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez, a), b), d) e) eta i) apartatuetako betekizunak betetzen diren. Hala ere, pertsona edo entitate eskatzaileak, bai eta ondasun-erkidegoetako eta sozietate zibiletako partaideek ere, berariaz egin ahal izango diote uko egiaztapen horri, eta, kasu horretan, eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazio eguneratua aurkeztu beharko dute beren kontura.

Ondasun-erkidegoen kasuan, egiaztatu beharko da haietan parte hartzen duten guztiek betetzen dituztela i) eta j) letretan ezarritako eskakizunak.

2.– 11.3 oinarrian aipatutako diruz lagundu daitekeen ehunekoaren igoera jaso ahal izateko, hau adierazi edo erantsi beharko da eskabidean:

a) 2025ean, «Eus-commerce» edo «Retail Euskal Eskola» programetan parte hartu dutela, laguntzaren xede den establezimendua dagoen lurralde historikoko merkataritza-, industria-, zerbitzu- eta nabigazio-ganberak emana; edo «Merkabide» programan parte hartu dutela, Euskal fundazioak emana. Programa horiek guztiak Merkataritza Zuzendaritzak bultzatutakoak dira.

b) Alta emanda dauden langileen txostena (ALT), Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, dirulaguntzaren xede den establezimenduko langileek enpresa onuradunarekin lan-lotura dutela egiaztatzeko.

c) Berdintasun-plana edo lana eta familia bateragarri egiteko plana izatearen ziurtagiria, edo Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako entitate laguntzailearen izendapena; izendapen hori Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak edo beste edozein administrazio publikok emango du.

d) Kontsumobideko Arbitraje Sistemari atxikita egoteari buruzko adierazpena.

e) Merkataritza-elkarteren batekin lotura izateari buruzko ziurtagiria, eskabide-egunear eguneratua.

f) 2025ean, «Berriz enpresa» programan parte hartu izanaren adierazpena. Programa hori, hain zuzen ere, laguntzaren xede den establezimendua dagoen lurralde historikoko merkataritza-, industria-, zerbitzu- eta nabigazio-ganberak ematen du.

g) Laguntzaren xede den establezimenduak 2025ean Bai Euskarari ziurtagiria edo Bikain ziurtagiria duela adieraztea, edo «Euskaraz barra-barra» proiektuan parte hartu duela adieraztea.

h) Eskabidearen xede den establezimendua 2025ean energia-erkidego baten parte izan dela egiaztatzen duen ziurtagiria.

i) 8. oinarriko 1. puntuan jasotako inbertsioa: laguntzaren xede den establezimenduaren azpiegitura eta ekipamendua berritzea.

j) Entitate eskatzaileak laguntzaren xede den establezimenduan egiten duen merkataritza-jarduerak 10 urte baino gehiagoko antzinasuna izatea.

Merkataritza Zuzendaritzak dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik eta, hala badagokio, emateko eta likidatzeko ebazpena eman aurretik egiaztatuko du a), d), f) eta g) apartatuetako betekizunak betetzen diren. Hala ere, pertsona edo entitate eskatzaileak, bai eta ondasun-erkidegoetako eta sozietate zibiletako partaideek ere, berariaz egin ahal izango diote uko egiaztapen horri, eta, kasu horretan, eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazio eguneratua aurkeztu beharko dute beren kontura.

3.– Enpresa batek hainbat establezimendutan egiten baditu inbertsioak, eskabidea egiteko aurkeztu behar den dokumentazio komuna lehenengo eskabidean bakarrik aurkeztu beharko da, ez eskabide guztietan.

#### 15. oinarria.– Zuzentzea.

1.– Merkataritza Zuzendaritzak antzematen badu aurkeztutako eskabidean akatsen bat edo zehaztasun faltaren bat dagoela, interesdunari hamar egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hutsegitea zuzentzeko edo eskatzen zaizkion agiriak aurkezteko. Horrez gain, adieraziko zaio, hori egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, 39/2015 Legearen 21. artikuluan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 20.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera eman beharko den ebazpenaren bidez.

2.– Eskabidea egin ondorengo izapideak (espedientera sarbidea izatea, jakinarazpenak, errekerimenduak, dokumentazioa aurkeztea eta prozeduran inplikaturako gainerako izapideak) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioaren bidez egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

3.– Jakinarazpen-sistemak aukera emango du egiaztatzeko zer egunetan eta zer ordutan jarri den jakinarazitako egintzaren edukia interesdunak eskuratzeko moduan. Jakinarazpena ez-onartutzat joko da haren edukia ez bada eskuratu jakinarazpena eskura jarri zenetik hamar egun natural igarotakoan; izapidea gauzaturtat joko da, eta prozedurak aurrera egingo du.

4.– Eskabidea aurrez aurre aurkezten bada, elektronikoki aurkeztu behar duela adieraziko zaio interesdunari. Ondorio horietarako, eskabidea bide hori erabiliz aurkezten den eguna hartuko da aurkezpen-datatzat.

#### 16. oinarria.– Ordezkaritza.

Ordezkaritza bidez jardun nahi izanez gero, ordezkaritza beste pertsona bati eman dakioke, interesdunaren izenean jardun dezan bitarteko elektronikoen bidez, agindu honi buruzko prozedura guztietan. Horretarako, honako bitarteko hauek erabiliko dira:

– Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko kokatua (<https://www.euskadi.eus/ordezkaritza/>); edo:

– «Borondatezko legezko ordezkaritza egilestea inprimaki normalizatua» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), eguneratua eta behar bezala formalizatua. Eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

Pertsona juridikoek, gainera, ordezkaritza-ahalordearen kopia erantsi beharko dute, edo, bestela, ahalorde-emailea entitate ordezkaritza-emailearen legezko ordezkaritza gisa legitimatzen duen legezko beste edozein dokumentu.

Ordezkaritza identifikaziorako bitarteko elektronikoko onartu bat eduki beharko du. Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko onartzen diren identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

#### 17. oinarria.– Erantzukizunpeko adierazpena.

1.– Pertsona eta entitate eskatzaileek berriaz horretarako prestatu diren eskabide-eredu eta inprimakiak bete beharko dituzte. Horiekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, alderdi hauek zehaztuta:

a) Deialdi honetan ezarritako eskakizunak betetzen dituela.

- b) Mikroenpresa edo enpresa ertain gisa hartua izateko behar diren baldintzak betetzen dituela.
- c) Pertsona edo entitatea ez dagoela sartuta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetan ezarrita dagoen onuradun izatea galarazten duen egoera batean ere.
- d) Ez daukala dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penal edo administratibo irmorik, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.
- e) Enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- f) Inbertsio hori bera egiteko beste erakunde publiko zein pribatu batzuetatik jasotako edo haiei eskatutako laguntzak.
- g) Enpresak azken hiru urteetan jasotako de minimis laguntzak.
- h) Betetzen duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa.
- i) Konpromisoa hartzen duela Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako betebeharrak onartzeko.
- j) Hala badagokio, merkataritza-, industria-, zerbitzu- eta nabigazio-ganberek emandako «Eus-commerce» edo «Retail Euskal Eskola» programetan edo Euskalit fundazioak emandako «Merkabide» programan parte hartu duela.
- k) Hala badagokio, Kontsumobideko Arbitraje Sistemari atxikita dagoela ([www.kontsumobide.euskadi.eus](http://www.kontsumobide.euskadi.eus)).
- l) Hala badagokio, merkataritza-, industria-, zerbitzu- eta nabigazio-ganberak emandako «Berriz enpresa» programan parte hartu duela.
- m) Hala badagokio, Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiria duela, edo «Euskaraz barra-barra» (<https://euskarazbarrabarra.eus/>) programan parte hartu duela.
- n) Hala badagokio, energia-erkidego bateko kide izatearen ziurtagiria duela.
- o) Ez dituela armak ekoizten, merkaturatzen edo finantzatzen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legeak xedatutakoa betez.
- p) Ez dagoela berreskuratze-agindu baten mende, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpkoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.
- q) Egunean dituela dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 7. artikuluan 4. artikuluekin lotuta ezarritakoaren arabera.
- r) Ez dagoela Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzekoa eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan xedatutako egoera eragozleetako batean ere.
- s) Konpromisoa hartzen duela diruz lagundutako jarduketak gainfinantzaketarik ez izateko.

2.– Espedientearen tramitazioaren edozein unetan begiratu ahal izango da eskabidean jasotako datuen egiazkotasuna.

Erantzukizunpeko adierazpenean agertzen den daturen bat faltsua izanez gero, administrazio- zein zigor-araubidearen arabera dagokion zehapena jasoko du.

18. oinarria.– Prozeduraren instrukzioa.

1.– Segidako lehiaketaren prozeduraren bitartez emango dira laguntzak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Prozedura horretan, dirulaguntza jasotzeko, oinarri hauetan ezartzen diren betekizunak bete besterik ez dute egin beharko pertsona edo entitate eskatzaileek; ez da haien artean konparaziozko balioespenik egingo, ez eta baterako aintzatespenik ere.

Eskabideak modu ordenatuan aztertu eta ebatziko dira. Horretarako, eskabideak aurkezteko hurrenkerari jarraituko zaio (eguna eta ordua), espedientea osatzen den unearen arabera. Eskabidea zuzentzeko edo osatzeko eskatu behar bada, aldaketa zein egun eta ordutan egin den hartuko da erreferentziazat.

2.– Merkataritza Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzeko lanak egitea, eta Merkataritzako zuzendaria izango da erantzulea.

3.– Merkataritzako zuzendariak ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta bertan adierazi beharko da zein eskatzaile eta zenbat ematea proposatzen den. Proposamen horrek behin betiko izaera izango du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritz.

Dirulaguntzak emateko espedientearen organo kudeatzailearen txostena egongo da, eta txosten horretan jasota geratuko da organo kudeatzailearen esku dagoen informazioaren arabera onuradun izateko proposatu diren pertsonen laguntza jasotzeko beharrezko eskakizun guztiak betetzen dituztela.

4.– Behin betiko ebazpen-proposamenak ez du eskubiderik sortzen proposatutako pertsona onuradunaren alde.

5.– Laguntzak segidako lehiaketaren prozeduraren bidez ematearen ondorioz deialdiari 2. oinarrian esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortzen bada, horren berri emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Turismo eta Merkataritzako sailburuordearen ebazpen baten bidez, eta ez da beste laguntza-eskabiderik onartuko argitalpen horretatik aurrera. Zuzkidura agortu den unean ebatzi gabe zeuden eskabideei ere ukatu egingo zaie laguntza, arrazoi beraren ondorioz.

19. oinarria.– Ebazpena, errekurtsioak, ebazteko eta jakinarazteko epea, jakinarazteko modua eta publizitate-prozedura.

1.– Turismo eta Merkataritzako sailburuordeari dagokio eskabide bakoitzaren ebazpena ematea, Merkataritzako zuzendariak proposatuta eta haren Zuzendaritzak txosten teknikoa egin ondoren. Txosten horretan jasota geratu beharko da, onuradun gisa proposatu den pertsona edo entitateak laguntza jasotzeko beharrezko eskakizun guztiak betetzen dituela eskuragarri dagoen informazioaren arabera.

2.– Prozedura ebazteko eta ebatzitzakoa jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, laguntza-eskabidea osatu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro eta jakinarazpenik egin ez bazaio pertsona edo entitate interesdunari, eskabidea administrazio-isiltasunez eze-tsi egin dela ondorioztatuko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko

20/2023 Legearen 22.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, gora jotzeko administrazio-errekurtsioa jartzeko ondorioetarako.

Kasu bakoitzean, ebazpenak hauek adieraziko ditu: eskatzailearen identitatea edo izen soziala, finantzatu beharreko jarduketa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamenduari lotzen zaiola. Eskatutako laguntza ematen ez badu, hauek adieraziko ditu: eskatzailearen identitatea edo izen soziala, ukatzeko zergatiak eta jar daitezkeen errekurtsioak.

3.– Ebazpenak elektronikoki eta banaka jakinaraziko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bitartez (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>), eta jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Informazio-ondorioetarako soilik, jakinarazpenaren abisua bidaliko zaie pertsona edo entitate interesdunei, SMS bidez edo posta elektronikoz, eskabide-inprimakian adierazitako telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-baliorik izango.

4.– Pertsona eta entitate eskatzaileei dirulaguntzak emateko ebazpenak eta ondorengo aldaketak banan-banan jakinarazteaz gainera, onuradunen zerrenda eta emandako dirulaguntzen zenbatekoa argitaratuko dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 26. artikuluan ezarritakoarekin bat.

5.– Ebazpen horrek ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, beraren aurka, pertsona eta entitate eskatzaileak gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

20. oinarria.– Egiaztagiria, justifikazio-epea, diruz lagundu daitezkeen gastuak eta murrizketa.

1.– Eskabidea aurkezteko unean inbertsioa gauzatuta badago, egiaztagiria ere aurkeztu beharko dira (ordainagiria).

Laguntza eskatzea eragin duen inbertsioa ez badago gauzatuta eskabidea aurkezteko unean, gehienez bi hilabeteko epea emango da egiaztagiria aurkezteko, laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; betiere, aurkezteko gehieneko epea errespetatu beharko da: 2026ko azaroaren 16a.

Egiaztagiria Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa erabilita aurkeztuko dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Fakturaren konturako aurrerakintzat ordaindutako gastuak, 2025eko uztailaren 1etik eskabideak aurkezteko epea hasi aurreko egunera arte eginak.

b) Eskabideak aurkezteko epea hasten den egunetik 2026ko azaroaren 16ra arte ordaindutako gastuak, biak barne.

Baliozkoak izan daitezen, ordainagiri guztietan argi eta garbi identifikatuta geratu beharko dira datu hauek: agindu-emailea (laguntzaren eskatzailea), hartzailea, faktura-zenbakia, kontzeptua, zenbatekoa eta ordainketa-data.

1.000 euroko edo gehiagoko ordainketen justifikazioa banku-transferentzien, banku-ziurtagi-rien edo ordainketa-laburpenen bidez egiaztatu beharko da, zerga-iruzurra prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriei buruzko uztailaren 9ko 11/2021 Legearen arabera.

3.– Ordainagiriak aurkezteko ezarritako epea igaro bada, eta ez badira aurkeztu, onuradunei eskatuko zaie hamabost egun baliaduneko epe luzaezinean aurkez dezatela dokumentazioa.

4.– Zehaztutako justifikazio-epean osorik edo partzialki ordaindu izana fakturen ordainagiri-rien bidez behar bezala egiaztatzen den zenbatekoa soilik lagunduko da diruz, nahiz eta adierazitako kostua handiagoa izan.

Ezarritako epeetan aurkezten ez bada egiaztagiria, dagokion faktura murriztuko da, baldin eta dirulaguntzen onuradun izateko oinarri hauetan ezarritako gutxienezko eskakizunak betetzen badira; eta murriztearen ondorioz diruz lagundu daitezkeen inbertsioa oinarri hauetan ezarritako gutxienezkoa baino txikiagoa bada, laguntza ukatu egingo da, edo ezeztatu, laguntza emanda baldin badago.

21. oinarria.– Laguntza ordaintzea.

1.– Ordainketa bakarrean ordainduko da laguntza, emateko eta likidatzeko ebazpena edo, hala badagokio, likidatzeko ebazpena eman ondoren, laguntza onartzeko ezarritako epea igaro eta gero, berariaz uko egin ez bazaio. Horretarako, finantzatutako inbertsioa egin dela eta benetan zer kostu egin den justifikatu beharko da, azken zenbatekoa ordainketa bakarrean likidatuta.

2.– Ordainketa egin aurretik, egiaztatu egin beharko da pertsona edo entitate onuradunak egu-nean ordainduta dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere, betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoaren arabera.

3.– Laguntzaren ordainketa jaso ahal izateko, pertsona edo entitate onuradunak nahitaez egon beharko du inskribatuta Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan, eta alta eman beharko du erregistro horretan inskribatuta ez badago, edo bere banku-datuak aldatu beharko ditu, ez badatoz bat titular duen eta laguntza jasotzeko erabili nahi duen kontuko datuekin. Telematikoki egin beharko du hori, helbide honetan: (<https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/>).

Hirugarrenen Erregistroko datuen alta edo aldaketa eskatzaileak berak edo haren ordezkari batek egin beharko du bitarteko elektronikoen bidez, baldin eta ordezkari hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen ahalordeen erregistro elektronikoa alta emanda badago: (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/>).

Erregistro horretan inskribatuta dagoen banku-kontuan ordainduko da dirulaguntza.

4.– Ez da dirulaguntzarik emango diruz lagundu daitezkeen aktiboen deskribapena ondo identifikatuta ez duten fakturetarako –ez dira onartuko kodetutako kontzeptuak–. Gainera, faktura horiek 100 euro edo gutxiagokoak izango dira, BEZik gabe.

22. oinarria.– Pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak.

Betebeharrak hauek bete beharko ditu pertsona edo entitate onuradunak:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, dirulaguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hamar egun naturaleko epean, pertsona edo entitate onuradunak dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.

b) Dirulaguntza zertarako eman den, horrexetarako erabiltzea.

c) Diruz lagundutako aktiboek fakturaren datatik aurrera 2 urtez egon beharko dute laguntzaren xede den establezimenduan.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren funtzioak betetzeko eskatutako informazio guztia ematea, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei dagokienez.

e) Helburu berarekin, beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu batzuetatik dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak jasoz gero, horren berri ematea.

Hura jakin bezain laster eman beharko dute haren berri, eta, nolana ere, jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

f) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatzen bada, horren berri ematea Merkataritza Zuzendaritzari.

Hura jakin bezain laster eman beharko dute haren berri, eta, nolana ere, jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

g) Dirulaguntza emateko ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, jasotako funtsak itzultzea.

h) Enpresa-deslokalizaziorik ez egitea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

i) Jasotako funtsak aplikatu direla egiaztatzen duten dokumentuak eta fakturak gordetzea, baita dokumentazio elektronikoa ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak horiek egiaztatzeko eta kontrolatzeko aukera izan dezan, gutxienez 4 urteko denbora-tartean, diruz lagundutako jardueraren azken justifikazioa egin eta hurrengo egunetik aurrera.

j) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoa betetzea, eta Administrazioaren laguntzak kontratatzen, hitzartzen edo jasotzen dituzten entitateei ezarritako betebeharrak onartzea.

Agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradunek indarrean dagoen araudia bete beharko dute, alde batera utzi gabe Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritako betebeharrak.

23. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Pertsona edo entitate eskatzaileak aukera izango du eskabidean atzera egiteko. Aurkeztutako eskabidearen ebazpena jakinarazi aurretik egin beharko du atzera. Merkataritzako zuzendariak bete-betean onartuko du atzera egite hori ebazpen baten bidez, eta amaitutzat emango du prozedura.

2.– Pertsona edo entitate onuradunak uko egin ahal izango dio emandako laguntzari. Emandako dirulaguntza onartu ondoren ere uko egin ahal izango zaio. Turismo eta Merkataritzako sailburuordeak, ebazpen baten bidez, berariaz onartuko du uko-egitea, eta, ordainketaren bat egin bada, itzultzeko betebeharra dagoela adieraziko du, dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesak barne; halaber, amaitutzat emango du prozedura, entitate onuradun horri dagokionez.

Ukoa ez da onartuko entitate interesdunari jadanik jakinarazi bazaio deialdiaren esparruan ez-betetze edo zehapen-prozedura bat abiarazi dela. Prozedura horrek ebazpena eman arte jarraituko du.

#### 24. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –dirulaguntzaren xedea bete bada, betiere– eta, hala badagokio, beste entitate publiko zein pribatu batzuetatik beste dirulaguntza eta laguntza bateragarriren bat jaso bada, laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.k), 16.4 eta 25. artikuluek diotenaren arabera.

Ondorio horietarako, Turismo eta Merkataritzako sailburuordeak dagokiona aldatzeko ebazpena emango du, interesdunari entzun ostean, eta emandako dirulaguntzen zenbatekoak doituko dira.

Baldintzak aldatzearen ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedura hasiko da, kasuan kasuko berandutze-interes eta guzti.

#### 25. oinarria.– Ikuskapena.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egoki iritzitako ikuskapen eta egiaztapen guztiak egingo ditu, diruz lagundutako jardunen garapenari eta egikaritzeari dagokienez; horrela, enpresa onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute, hargatik eragotzi gabe Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin dezaketen kontrola, betiere beren eginkizunak egikarituz, jasotako laguntzei dagokienez.

Faktoretan jasotako inbertsioak laguntzaren xede den establezimenduan egindakoei dagozkiela egiaztatu beharko du funtsean ikuskapenak.

#### 26. oinarria.– Ez-betetzeak eta dirua itzultzea.

1.– Agindu honetan edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak ez betetzeak, ikuskatze-fasean hautemanda, dirulaguntza likidatu eta ordaindu ondoren, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du, edo, hala badagokio, jasotako kopuru osoa edo zati bat itzultzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta bat datozen artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Itzulketa printzipio hauen arabera zehaztuko da: legezkotasuna, proportzionaltasuna, ez-beteztearen eta ondorio juridikoaren arteko egokitasuna, gainfinantzaketarik eza, balio osoz egindako egintzen kontserbazioa eta banakako arrazoiketa.

2.– Dirulaguntza osorik itzuli beharko da egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Diruz lagundutako inbertsioa egin ez denean.

b) Diruz lagundutako ondasunak establezimenduan kokatzen ez direnean, egiaztapen- edo ikuskatze-jarduerean esparruan.

c) Onartutakoa ez den beste xede baterako erabili denean, laguntzaren helburua funtsean aldatuz.

d) Dirulaguntza emateko erabakigarriak diren datuak faltsutzea, zehatz ez ematea edo ezkutatzea.

e) Aldi berean, bateragarriak ez diren laguntzak jasotzea edo dirulaguntza ematea eragotziko zuketuen finantzaketa-mugak gainditzen direnean.

f) Egiaptapen- eta ikuskatze-jarduerei erresistentzia, aitzakiak edo oztopoak jartzen zaizkienean edo kontrol horiei uko egiten zaienean.

3.– Ez-betetzeak diruz lagundutako jarduera osoari eragiten ez dionean eta helburuaren betetze partziala egiaztatuta dagoenean, itzulketa proportzionalki zehaztuko da, atzeman den ez-betetze mailaren arabera. Bereziki:

a) Gauzatutako edo kokatutako inbertsioa diruz lagundutakoa baino txikiagoa denean, itzulketa gauzatu gabeko edo egiaztatu gabeko inbertsioaren zatiarekiko zuzeneko proportzioan zehaztuko da.

b) Gainfinantzaketa gertatzen denean, itzulketa pertsona onuradunak benetan jasandako kostuaren gaitetiko soberakinera mugatuko da, eta horrela, bermatuko da laguntza inola ere ez dela jardueraren benetako kostua baino handiagoa izango.

c) Helburua mantentzen denean, baina funtsezkoak ez diren desbideratze teknikoak daudenean, proportzionaltasun-irizpidea aplikatuko da, egiaztatutako betetze-maila kontuan hartuta.

4.– Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira, eta dagokien berandutze-interesa sortuko dute, dirulaguntza ordaindu zen egunetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, aplikatu beharreko araudian xedatutakoarekin bat etorritik.

5.– Itzuli beharreko kopuruak, berandutze-interesak barne, zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira, bilketaren ondorioetarako, eta zuzenbide publikoko diru-sarrerei aurreikusitako araubidea aplikatuko zaie.

6.– Itzulketa dagokion administrazio-prozeduraren bidez izapidetuko da (Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeako abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40-43. artikulua), pertsona interesdunari 15 egun balioduneko entzunaldia emanda eta organo eskudunak arrazoitutako ebazpenaren bidez.

Itzulketa-eskakizuna independentea izango da, hala badagokio, aplikatu daitekeen zehapen-araubidearekiko.

Ez-betetzearen espedientea egoitza elektronikoaren bidez bakarrik izapidetuko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

27. oinarria.– Datu pertsonalak.

Datu pertsonalak babesteari buruzko informazio-klausula (3/2018 Legea, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa).

Arduraduna: Merkataritza Zuzendaritza, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila.

Helburua: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak iragartzen dituen merkataritzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion ahalorde publikoak egikaritzeko (20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeakoa; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).

Hartzaileak: ogasun publikoa eta zerga-administrazioa, interesdun legitimoak, Europar Batasuneko organoak, organo judizialak, autonomia-erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: eskatzaileak eskubidea du bere datuak irispidean izateko, zuzendu eta ezerezteko, bai eta tratamendua mugatu eta haren aurka agertzeko ere.

2026ko ekainaren 2a, asteartea

## II. ERANSKINA

MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUAK ETA MERKATARITZA-JARDUERAREKIN LOTUTAKO  
ZERBITZU JAKIN BATZUK MODERNIZATZEKO LAGUNTZAK (2026KO MEC)

(ERREF. 1010113)

## ESKABIDE-EREDUA

## 1.- ESKATZAILEA.

Merkataritza-establezimenduan edo merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduan egiten den jarduera nagusiaren titularra:	
Ordezkarria:	
Instrukzio-organo honi zuzendua: Merkataritza Zuzendaritza	

## 2.- ESKATZAILEAREN DATUAK.

Eskatzailea:	
Identifikazio-agiria:	
Zenbakia:	
Pertsona juridikoa bada:	
Entitatearen izena:	
Pertsona fisikoa bada:	
Izena:	
1. abizena:	
2. abizena:	
Sexua:	Gizona: <input type="checkbox"/> Emakumea: <input type="checkbox"/>
Nortasun juridikorik gabeko entitatea bada (ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak).	
Entitatearen izena:	

Ordezkarria:	
Identifikazio-agiria:	
Zenbakia:	
Pertsona juridikoa bada:	
Entitatearen izena:	
Pertsona fisikoa bada:	
Izena:	
1. abizena:	
2. abizena:	
Sexua:	Gizona: <input type="checkbox"/> Emakumea: <input type="checkbox"/>

## 3.- PERTSONA EDO ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK.

Laguntza eskatzen duen pertsona edo entitatea:			
Autonomoa:	<input type="checkbox"/>	Mikroenpresa:	<input type="checkbox"/>
Enpresa txikia:	<input type="checkbox"/>	Nortasun juridikorik gabeko elkarte:	<input type="checkbox"/>

Nortasun juridikorik gabeko elkarte bada:						
Ondasun-erkidegoa:	<input type="checkbox"/>	Sozietate zibila:	<input type="checkbox"/>			
Ondasun-erkidegoaren edo sozietate zibilaren kasuan, parte-hartzaile guztien datuak bete behar dira, deialdiaren eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko.						
Identifikazio-agiria	Zenbakia:	Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Sexua	Partaidetza-ehunekoa
(Behar beste aldiz errepikatu)						
Elkartearen ordezkaria:						

Bazkide kopurua:		
Gizonezkoak:	Emakumezkoak:	Bazkideak, guztira:
Laguntzaren xede den establezimenduko soldatapeko langileak:		
Gizonezkoak:	Emakumezkoak:	Langileak, guztira:
Webgunea:		

## 4.- ESKATZAILEAREN EGOITZA SOZIALA.

Pertsona edo entitate eskatzailearen egoitza soziala	
Helbidea (kalea):	
Zenbakia:	
Udalerria:	PK:
Lurralde historikoa:	

Legezko ordezkaria:	
Identifikazio-agiria:	
Zenbakia:	
Izena:	
1. abizena:	
2. abizena:	
Sexua:	Gizona: <input type="checkbox"/> Emakumea: <input type="checkbox"/>

2026ko ekainaren 2a, asteartea

Harremanetarako pertsona:	
Izena:	
1. abizena:	
2. abizena:	
Sexua:	Gizona: <input type="checkbox"/> Emakumea: <input type="checkbox"/>
Helbide elektronikoa:	
Telefono mugikorra:	

## 5.– LAGUNTZAREN XEDE DEN ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK.

Inbertsioaren kokapena	
Laguntzaren xede den merkataritza-establezimenduaren edo merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduaren datuak	
Establezimenduaren izena:	
Establezimendua zer epigrafe nagusirekin dagoen alta emanda ekonomia-jardueren gaineko zergan:	
Laguntzaren xede den merkataritza-establezimendua edo merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimendua zein egunetan dagoen alta emanda ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe nagusian:	

Helbidea (kalea):	
Zenbakia:	
Udalerria:	PK:
Lurralde historikoa:	

Diruz lagun daitezkeen inbertsioak:	
<input type="checkbox"/> 1: Merkataritza-establezimenduaren edo merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduaren azpiegitura eta ekipamendua berritzea:	
<input type="checkbox"/> 2: Teknologia berriak eta berrikuntza sartzea.	

Egindako inbertsioa								
1. Merkataritza-establezimenduaren edo merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduaren azpiegitura eta ekipamendua berritzea.								
Fakturak:								
Data	Zenbakia	Kontzeptua	Hornitzailea	Faktura, guztira	Diruz lagun daitezkeen zenbatekoa (BEZik gabe)	Ordaindua Bai/Ez	Ordainketa-eguna	Inbertsioaren deskribapen laburra
PDFa erantsi.								
PDF bakarra erantsi behar da, non faktura eta ordainagiri guztiak ordenatuta agertuko baitira.								

## 2. Teknologia berriak eta berrikuntza sartzea.

## Fakturak:

Data	Zenbakia	Deskribapen laburra	Hornitzailea	Faktura, guztira	Diruz lagun daitekeen zenbatekoa* (BEZik gabe)	Ordaindua Bai/Ez	Ordainketa-eguna	Inbertsioaren deskribapen laburra

PDFa erantsi.

PDF bakarra erantsi behar da, non faktura eta ordainagiri guztiak ordenatuta agertuko baitira.

Inbertsio onargarriaren ehunekoa handitu egingo da, laguntzaren xede den establezimenduak baldintza hauetakoren bat egiaztatzen badu:

 «Merkabide», «Retail Euskal Eskola» edo «Eus-commerce» programetan parte hartzea 2025ean.

• Programa hauetakoren batean parte hartu al du 2025ean?		
Merkabide	BAI	EZ
Retail Euskal Eskola	BAI	EZ
Eus-commerce	BAI	EZ

 8. oinarriko 1. puntuan jasotako inbertsioa.

 Emakumearen enpleguaren egonkortasun-irizpidea (Erantsi).

 Berdintasun-plana edo lana eta familia bateragarri egiteko plana izatea, edo Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako entitate laguntzailearen izendapena izatea (Erantsi).

 Kontsumobideko Arbitraje Sistemari atxikita egotea.

• Atxikita al dago Kontsumobideko Arbitraje Sistemari?		
	BAI	EZ

 Eskualde- zein lanbide-elkarteren batekiko lotura egiaztatzea. (Erantsi)

 «Berriz enpresa» programan parte hartzea 2025ean.

• Berriz enpresa		
	BAI	EZ

 Dirulaguntzaren xede den merkataritza-establezimenduaren edo merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduaren antzintasuna.

 Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiriak egiaztatzea 2025 urtean zehar, edo Euskaraz barra-barra programan parte hartu izana egiaztatzea.

Bai Euskarari	BAI	EZ
Bikain	BAI	EZ
Euskaraz barra-barra	BAI	EZ

 Energia-erkidegoren baten parte izatea 2025ean (Erantsi).

• Energia-erkidegoren batean al dago?	
BAI	Energia-erkidegoaren izena:
EZ	

\*Aurka egonez gero, eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira dokumentuak.

## 6.- JAKINARAZPENETARAKO DATUAK.

Jakinarazpenen hartzailea	
Espedientea izapidetzen ari den bitartean, administrazioak honi bidaliko dizkio jakinarazpenak:	
Izena:	
1. abizena:	
2. abizena:	
Harremanetarako hizkuntza:	Euskara <input type="checkbox"/> Gaztelania <input type="checkbox"/>

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala	
Telematikoa: «Nire karpeta» ataleko jakinarazpenen eta komunikazioen postontzira bidaliko dira jakinarazpenak eta komunikazioak. Sartzeko, ezinbestekoa da identifikazio elektronikoko bitarteko bat erabiltzea.	
10 egun naturaleko epean ez bazara sartzen jakinarazpen elektronikoko bat ikustera, ulertuko da uko egin diozula: izapidea egintzat emango da eta Administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.	
Helbide elektronikoa:	
Telefono mugikorra:	
Datuak erabiltzeko baimena:	
<input type="checkbox"/>	Onartzen dut nire komunikazio- eta abisu-datuak oro har baliatzea Eusko Jaurlaritzaren sailekin eta erakundeekin ditudan harremanetan.
<input type="checkbox"/>	Komunikazio eta abisuetarako nire datuak espediente hau kudeatzeko bakarrik erabiltzea nahi dut.

## 7.- OINARRIZKO DATUAK.

Laguntza eskatu duen entitatearen datu fiskalak zer lurralde historikotan dauden:			
Araba:	<input type="checkbox"/>	Bizkaia:	<input type="checkbox"/>
		Gipuzkoa:	<input type="checkbox"/>

Hirugarrenen altari buruzko datuak:	
Pertsona edo entitate eskatzaileak erregistratuta egon beharko du Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Hirugarrenen Erregistroan. Alta eman dezake edo aurretik gehitutako informazioa aldatu, telematikoki, helbide honetan jasotako jarraibideen arabera: <a href="https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenen-erregistro-telematikoa/">https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenen-erregistro-telematikoa/</a> .	

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa:	
Eskabidean jasotako datu pertsonalak «Merkataritza-arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.	
Arduraduna: Merkataritza Zuzendaritza, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila.	
Xedea: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak iragartzen dituen merkataritzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea.	

<p>Legitimazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko eginkizun bat betetzeko.</li> <li>• 20/2003 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.</li> <li>• 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.</li> <li>• 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.</li> <li>• 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.</li> </ul>
<p>Hartzaileak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ogasun publikoa eta zerga administrazioa.</li> <li>• Interesdun legitimoak.</li> <li>• Europar Batasuneko organoak.</li> <li>• Organo judizialak.</li> <li>• Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.</li> </ul>
<p>Eskubideak:</p> <p>Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.</p>
<p>Informazio gehigarria:</p> <p>Gure web-orrian ikus dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza (<a href="https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/076200-cap2-eu.shtml">https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/076200-cap2-eu.shtml</a>)</p>
<p>Araudia:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<a href="https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf">https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf</a>).</li> <li>• 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<a href="http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673">www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673</a>).</li> </ul>

Entitate eskatzailearen tipologia:	
Laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte beren konturako langileek edo langile autonomoek, ondasun-erkidegoek, sozietate zibilek, mikroenpresek eta enpresa txikiek baldin eta jarduera ekonomiko eta epigrafe hauetan alta emanda badaude ekonomia-jardueren gaineko zergan:	
Txikizkako merkataritza:	
641	Fruituen, barazkien, ortuarien eta tuberkuluen txikizkako merkataritza.
642	Honako hauen txikizkako merkataritza: haragia eta hondakinak, haragi-gai eta haragiki landuak, arrautzak, hegaztiak, abeletxeko untxiak, ehizakiak, eta horien ekoizkin eratorriak.
643	Arrainen eta arrantzako eta akuikulturako bestelako ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.
644	Ogi, pastel, gozoki eta antzekoen eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza.
645	Mota guztietako ardoen eta edarien txikizkako merkataritza.
646.1	Era eta forma guztietako tabako-laboreen txikizkako merkataritza, saltoki orokorretan, berezietan eta barnekoetan egiten denean.
646.2	Era eta forma guztietako tabako-laboreen txikizkako merkataritza, saltoki orokorren aldi baterako hedapenetan.
646.3	Era eta forma guztietako tabako-laboreen txikizkako merkataritza, saltoki osagarrietan egiten denean.
646.4	Tabako-laboreen txikizkako merkataritza, salmenta errekargudunerako baimena duten merkataritza-establezimenduetan egiten denean.
646.6	Era eta forma guztietako tabakoen txikizkako merkataritza, salmentarako estankorik ez dagoen udalerrietan.
646.7	Baimen bereziak dituzten ezindu fisikoek egindako tabako-laboreen txikizkako merkataritza.
646.8	Erretzaileentzako artikuluen txikizkako merkataritza.
647.1	Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, establezimendu saltzailedunetan.

647.2	Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko araubidean nahiz araubide mistoan, saltzeko gelak 120 m <sup>2</sup> baino gutxiagoko azalera duenean.
647.3	Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko araubidean nahiz araubide mistoan superzerbitzutan, hala hartuta saltzeko gela 120 eta 399 m <sup>2</sup> artekoa denean.
651	Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza.
652.1	Farmazietako bulegoetan egindako sendagaien, osasun-produktuen eta higiene pertsonalerako produktuen txikizkako merkataritza.
652.2	Drogeriako, lurringintzako eta kosmetikako produktuen, garbiketako gaien, pinturen, bernizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.
652.3	Lurringintzako eta kosmetikako ekoizkinen eta higiene eta garbiketa pertsonalerako gaien txikizkako merkataritza.
652.4	Belar-dendetako landareen eta belarren txikizkako merkataritza.
653	Etxeko ekipamenduen eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.
654.2	Lurreko ibilgailuentzako osagarrien eta ordezeko piezen txikizkako merkataritza.
654.5	Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (salbu eta etxeko aparatuak, bulegokoak, medikoak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak).
654.6	Mota guztietako ibilgailuetarako pneumatikoen, banden eta aire-ganberen txikizkako merkataritza.
656	Altzarien, jantzien, etxean erabiltzeko jantzi eta tresna arrunten eta antzeko ondasun erabilien txikizkako merkataritza.
657	Musika-tresnen eta horien osagarrien txikizkako merkataritza.
659	Bestelako txikizkako merkataritza.
662	Txikizkako merkataritza mistoa edo integratua.
691.1	Etzerako artikulua elektrikoen konponketa.
691.9	BISGko kontsumo-ondasun zenbaiten konponketa.
Hiriko merkataritza-jarduerari lotutako beste zerbitzu batzuk.	
971	Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.
972	Ile-apaindegiak eta edertasun-apaindegiak.
973.1	Argazkigintza-zerbitzuak.
973.3	Fotokopiagailuen bitartez agiriak kopiaatzeko zerbitzuak.
975	Markogintza-zerbitzuak.

Pertsona edo entitate eskatzaileak bete beharreko baldintzak:

1. Pertsona edo entitate eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egon beharko du.
2. Pertsona eta entitate eskatzaileek eskakizun hauek bete beharko dituzte:
  - a) Norberaren konturako langile edo autonomo, sozietate zibil, ondasun-erkidego, mikroenpresa edo enpresa txiki izaera izatea, Europako Batzordeak mikroenpresa eta enpresa ertain eta txikien definizioari buruz 2003ko maiatzaren 6an emandako 2003/361/EE Gomendioan ezarritakoarekin edo gomendio hori ordeztzen edo aldatzen duten xedapenekin bat.
  - b) Laguntza-eskaeraren xede den kaleko establezimendu fisikoaren jarduera ekonomikoak eta haren egoitza sozial eta fiskalak EAEn egon beharko dute, zabalik behar dute, eta jardunean.
  - c) Agindu honen 5. oinarrian jasotako ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe edo multzoren batean kokatutako jarduera batean aritzea eta alta emanda egotea eskabidea egiten den egunean.
  - d) Egunean edukitzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
  - e) Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.

3. Diruz lagundutako inbertsioak gutxienez bi urtez egon beharko du (dagokion fakturaren datatik aurrera) laguntzaren xede den establezimenduan. Tarte horretan ezin zaie hirugarren pertsona fisiko nahiz juridikoei laga.
4. Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, haietan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiak bete beharko dituzte ezarritako eskakizunak eta baldintzak. Merkataritza Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko du, eta berariaz egin ahal izango zaio aurka egiaztapen horri, dagokion dokumentazioa nork bere kontura aurkeztuta.
5. Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du 2. puntuko b), c) eta d) apartatuetan ezarritakoa betetzen dela, horretarako gaitutako datu-bitartekaritzako plataformak edo bestelako sistema elektronikoak kontsultatuz. Hala ere, pertsona edo entitate eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, aurreko apartatuetan identifikatutako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

## Erantzukizunpeko adierazpena:

A) Merkataritza-establezimenduaren edo merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduaren jardura:

Laguntzaren xede den kaleko establezimendu fisikoa EAEn kokatuta dagoela, zabalik dagoela eta jardunean.

Enpresaren deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezartzen den moduan.

B) Laguntzaren onuradunari dagokionez:

Pertsona edo entitatea ez dagoela Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorrak onuradun izateko 13. artikuluan ezartzen dituen debeku-egoeretan.

Eskatzailea enpresa bat bada, mikroenpresa edo enpresa txiki gisa sailkatzeko baldintzak betetzen dituela:

- Mikroenpresa: soldatapeko hamar langile baino gutxiago izatea, eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra ez izatea 2 milioi eurotik gorakoa.
- Enpresa txikia: soldatapeko berrogeita hamar langile baino gutxiago izatea, eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra ez izatea 10 milioi eurotik gorakoa.

Ez dituela armak ekoizten, merkaturatzen edo finantzatzen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasun Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legeak xedatutakoa betez.

Egunean dituela dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 7. artikuluan 4. artikuluekin lotuta ezarritakoaren arabera.

C) Zehapenei dagokienez:

Ez daukala dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penal edo administratibo irmorik, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

Ez daukala inolako itzultze- edo zehatze-prozedurarik abian Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren organismo autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan.

Honako itzulketa- edo zehapen-prozedura hauetan sartuta dagoela eta Merkataritza Zuzendaritzari horiei buruzko ebazpenen berri emango diola.

Prozedurak:

Hasiera-data	Administrazioa/ Organismoa	Sail izapidegilea	Espediente- zenbakia	Zenbatekoa

Errepikatu, nahi beste aldiz.

D) Bestelako laguntzei dagokienez:

Europakoak EZ diren laguntzak:

Ez duela eskabiderik aurkeztu edo laguntzarik lortu inbertsio honetarako erakunde publiko zein pribatuetatik, gaur arte: (ez bada betetzen, ulertuko da ez duela beste laguntzarik eskatu).

Laguntza-eskabide honez gain, helburu honetarako eskabidea aurkeztu du edo laguntza eskuratu du beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik, gaur arte.

2026ko ekainaren 2a, asteartea

Eskaera-urtea	Erakundea	Programa	Laguntza mota	Jarduera	Eskatutako zenbatekoa	Emandako dirulaguntza

Errepikatu, behar beste aldiz.

Europako laguntzak:

Azken 3 urteetan EZ duela jaso Europar Batasuneko zuzentzauek ezarritako minimis aruari (1) lotutako laguntza edo dirulaguntzarik.

Azken 3 urteetan, aurtengoa barne hartuta, Europar Batasuneko zuzentzauek ezarritako minimis aruari (1) lotutako laguntza edo dirulaguntza hauek jaso dituela.

Eskaera-urtea	Erakundea	Programa	Laguntza mota	Jarduera	Eskatutako zenbatekoa	Emandako dirulaguntza	Erreferentzia Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Errepikatu, behar beste aldiz.

(1) Minimis aruaren arabera, enpresa batek minimis kontzeptupean jaso ditzakeen laguntza guztien zenbateko osoa ezin da 300.000 eurotik gorakoa izan, 3 urteko epean.

Halaber, konpromisoa hartzen du erakunde publikoetan zein pribatuetan inbertsio honetarako eskatzen edo lortzen dituen laguntza guztiak ezagutarazteko.

Ez dagoela berreskuratze-agindu baten mende, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela. Eta konpromisoa hartzen duela diruz lagundutako jarduketak gainfinantzaketarik ez izateko.

E) Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez:

Ez daukala dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradun izatea debekatzen dion zigorrik, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Betetzen duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa.

Konpromisoa hartzen duela bere gain hartzeko Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikulua administrazioaren laguntzak kontratatzen, hitzartzen edo jasotzen dituzten entitateei ezarritako betebeharrak: tratu-berdintasunaren, aukera-berdintasunaren eta langileen aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetuaren printzipioak betez jardutea, estatistika eta azterketak egokitzea, hizkera ez-sexista erabiltzea euskari guztietan, eta zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan gaitasun, prestakuntza eta ahalmen egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua edukitzea.

Ez dagoela Trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorra lortzeko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan xedatutako egoera eragozleetako batean ere.

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako entitate laguntzaile gisa ageri dela Emakunden.

F) Eskabideko datuei dagokienez:

Indarrean dauden arauetan ezarritako eskakizunak betetzen ditu.

Egiazkoak eta ondo osatuak dira eskabide honetako datu guztiak, bai eta aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta neure gain hartzen dut dagokidan erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaritzen dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Oharra: emandako datuak indarrean dagoen NAN/AIZn edo identifikazio fiskaleko txartelean ageri diren berdin-berdinak izango dira.

Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak:
<p>Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Enpresaren eratze-eskritura osoak, eta horietan ondoren egindako aldaketak, pertsona juridikoen kasuan. Ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak: eratze-kontratua.</li> <li>2. Ordezkaritza eman nahi bada eta Ordezkarien Erregistro Elektronikoa erabili nahi ez bada, borondatezko legezko ordezkaritza emateko inprimaki normalizatua, behar bezala bete eta sinatua.</li> <li>3. Laguntzaren xede diren inbertsioen fakturak eta haiek ordaindu izanaren frogagiriak, eskaera aurkezten denean halakorik badute.</li> <li>4. Energia-efizientzia altuko ziurtagiria, lokala girotzeko ekipamendurako inbertsioetan.</li> <li>5. Deskripzio-memoria, laguntzaren xede den establezimenduan egindako inbertsioen ezaugarri, funtzio eta jarduera nagusiarekiko loturari buruzkoa.</li> <li>6. Erantzukizunpeko adierazpena, 17. oinarrian ezarritakoaren arabera, non adierazten den egiazkoak direla eskabideko datuak eta aurkeztutako dokumentazioa eta bere gain hartzen duela dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua arabera).</li> </ol> <p>11.3 oinarrian aipatzen diren eta diruz lagun daitezkeen ehunekoaren gehikuntzak frogatzeko behar den dokumentazio osagarria:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Alta emanda dauden langileen txostena (ALT), Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, dirulaguntzaren xede den establezimenduko langileek enpresa onuradunarekin lan-lotura dutela egiaztatzeko.</li> <li>2. Berdintasun-plana edo lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko plana izatearen ziurtagiria, edo Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako entitate laguntzailearen izendapena; izendapen hori Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak edo beste edozein administrazio publikok emango du.</li> <li>3. Merkataritza-elkarteren bateko kide dela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.</li> <li>4. 2025ean energia-erkidegoren bateko kide izatearen ziurtagiria.</li> </ol> <p>Enpresa batek inbertsioak egiten baditu zenbait merkataritza-establezimendutan edo merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako zenbait establezimendutan, dokumentazio komuna ez da eskabide guztietan aurkeztu beharko, baizik eta soilik lehenengoan.</p>
<p>Ofiziozko egiaztapena:</p> <p>Aplikagarria den araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organismoak honako datu hauek egiaztatuko ditu ofizioz:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Nortasun-datuaren egiaztapena (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia), pertsona fisikoaren kasuan.</li> <li>2. Identifikazio fiskaleko agiria, pertsona juridikoa bada.</li> <li>3. Egoitza soziala, pertsona juridikoen kasuan.</li> <li>4. Egoitza fiskala (foru-ogasunak).</li> <li>5. Laguntzaren xede den enpresaren ekonomia-jardueren gaineko zergako alta eta bajeen historiaren ziurtagiria, eskabidearen egunean (foru-ogasunak).</li> <li>6. Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izatea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN).</li> <li>7. Foru-ogasunekiko zerga-betebeharrak egunean izatea (foru-ogasunak).</li> <li>8. Ahalordetze-erregistro elektronikoan emandako ordezkaritza-ahalmena.</li> <li>9. «Merkabide», «Retail Euskal Eskola», «Eus-commerce» edota «Berriz enpresa» programetan 2025ean parte hartu izanaren ziurtagiriak.</li> <li>10. Establezimendua Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikitzea (Eusko Jaurlaritza).</li> <li>11. 2025ean, «Bai Euskarari» edo «Bikain» ziurtagiriak, edo «Euskaraz barra-barra» programan parte hartu izanaren ziurtagiria.</li> </ol> <p>Aurka egonez gero, eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira dokumentuak.</p>
<p>Informazio gehigarria.</p>
<p>Datu pertsonalak egiaztatzea.</p> <p>Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, jakinarazten zaizu Merkataritza Zuzendaritzak, dagozkion eskumenak egikaritzuz, beharrezkoak diren egiaztapenak egingo dituela frogatu ahal izateko eskabide honetan adierazi dituzun eta administrazio publikoaren eskura dauden datu pertsonalak zehatzak direla.</p>
<p>Eskabideko sinadura elektronikoa:</p>